

HARREMANAK

Bezeroek gure app. aktiboa dela jakinarazi behar dute eta horretarako gauza puntualak eta denbora jakin batekoak egiten joan behar gara. Zozketak egitea, aukera ona da bertan parte hartzerakoan gure enpresa promozionatzeko baldintza ipini ahal diegulako eta bide batez haien onerako ere delako. Zozketak mota desberdinekoak izango dira: lorpen txikikoak non etekina guztiontzat gutxiago izango da sortatzen duguna kantitate txiki batean delako eta horrek eragiten duelako jende gutxiago parte hartzea; baina, bestetik, momentu puntaletan, etekin handikoak egongo dira eta honek erakarpen handiagoa izango dute bai publikoarentzako bai enpresaren garaipenerako.

Argi dago aplikazioa garatzeko eta nagusitasuna lortzeko, bezeroaren laguntza behar dugula eta horretarako haien parte hartzea eta integrazioa behar dugu. Beraz, genero bakoitzeko sekzioan elkarrizketak mantendu ahal dituzun atal bat dago. Beste bezeroekin komunikatu ahal zara baina termino batzuk daude bertan egoteko: aplikazioan erregistratzea (dohainik) eta publikoa da, hau da, bertan daudenak ikusi dezakete baina beti enpresaren behaketan.

Bestalde, gure bezeroak ere artistekin komunikatu ahal izateko, kontzertuen aurretik, 2 ordu aurretik gutxi gora behera, txat berezi bat zabalduko da non musika taldea edo artista barne egongo da eta, beraz, haiei zuzenki galderak eta zalantzak argitzeko gaitasuna izango dute. Elkarrizketa hauek, enpresako pertsonak kontrolatuta izango dute inolako liskarrik ez egoteko. Gainera, pertsona kopuru tope bat egongo da txata kontrolatik kanpo ez joateko eta gauza lasai bat izateko.